

Askarai eta Uzkudun, tetraplegiari aurrez aurre



AURKIBIDEA

Iritzia Garbiñe Biurrun **3**

Erreportajea Mendi tontorretatik
oihartzuna presoen eskubideei **4-7**

Gogo eta gorputzak

Alazne Apalantza **8-9**

Asteko Gaia Tetraplegia,
azalean zein ondoan **10-17**

Bertsoa Oibar Olano **19**

Iritzia Haritz Azurmendi **20**

Iritzia Nekane Artolazabal **21**

Agenda **22-23**

Zazpigarren Ilara Mirena Nafarrate
eta Patricia Albizurekin **24-29**



Azaleko irudia
Mikel Eizagirre

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabiltzen eta
lana eskatzen

Bikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEa: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:

BERTAKO
HEDABIDEAK



galtzaundi

berria

Txokirre

Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa eta Zizurkil.



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Eztabaida politikoa hauteskundeetan



**GARBIÑE BIURRUN
MANCISIDOR**
EPAILEA

Madrilgo Autonomia Erkidegoko hauteskundeak hainbat faktorek aztoratu dituzte, besteak beste, hautagai batzuen hitzezko «gehiegikeriek» eta propagandak.

Honek beti eztabaida interesgarri eta ezinbestekoa sortzen du: ideia batzuen hedapena eragozteko neurriak hartu behar den ala ez, alderdi politiko batzuen ordezkaritza mugatu behar den ala ez eta, baita ere, komunikabideen bidez gizartean duten presentzia saihestea egokia izango litzatekeen ala ez.

Eztabaida horrek eskuin muturrari eragiten dio bereziki, eta oso konplexua da. Lehenik eta behin, ideia batzuk geldiarazi egin behar direla erabaki beharko litzatekeelako. Bigarrenik, zehaztu beharko genukeelako nork izango lukeen ideia jakin batzuk arriskutsutzat edota muturrekotzat jotzeko erantzukizuna eta betebeharra eta nori legokiokkeen ideia horien hedapena geldiaraztea.

Nolanahi ere, argi dagoena da horrelako erabakiek ez dutela balio izan beste herrialde batzuetan herritarren artean dituen hauteskunde-entzunaldietan ideia jakin batzuen aurrerapena geldiarazteko. Egia da, kasu batzuetan, geldiarazi egin dela botere-eremu desberdinetara iristea, alderdi jakin batzuk isolatuz. Horrela bizi izan dugu Euskadin garai batean «ezker abertzalea» deiturikoari dagokionez, ez zuelako -edo esan nahi zaion bezala- ETaren indarkeria gaitzesten.

Orain, Estatu osoan, «muturrekoetan», «populismoetan», faxismoan edo komunismoan oinarritzen diren hesi gurutzatuen saiakerak daude. Eta hau oso kezkarria da.

Benetan, kezkarria iruditzen zait ideia politikoei oztopoak jartzea, erabat arbuigarriak iruditzen baizait ere, kosta egiten baitzait isilaraztea.

Ez dut ukatzen emakumeen aurkako indarkeriak berezitasunik ez duela edo pertsona migratzaileek nazionalen errespetu eta babes bera merezi ez dutela edo Francoren erregimena diktadura ez zela izan uste duena Gobernura iristea arriskutsua dela.

Edo ez al da, gaur egun ere, arriskutsua izan edozein Zuzenbide-Estatuarentzat polizia-bulegoetan torturatu izana eta gutxien-gutxienean ere hori ikertu ez izana -Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegiak behin eta berriz esaten duen bezala?-. Edo ez al ziren arbuigarriak izan giza eskubide oinarritzkoenak arantzazko eta marrazazko alanbreak jartzea -«kontzertina» ospetsuak- Ceuta eta Melillako hesietan, Rodríguez Zapateroren Gobernuak egin zuen bezala? Eta horrelako adibide asko daude.

Agian nik, isolamenduaren tesi berari jarraituz, duela urte batzuk aplikatuko nien alderdi politiko batzuei, nahiz eta nahiko bakarrik geratuko nintzatekeen. Eta, gainera, ideia batzuen aurrerapena geldiaraztea ere ez zen lortuko. Zeren ideia higuigarriak geldiarazteko modu iraunkor bakarra herritarrok entzutea, arrazoitzea, konparatzea, norberaren iragazkitik pasatzea eta, azken batean, konbentzimenduz errefusatzeko baita.

Politikari batzuen ahotan zenbait ideia entzun izana oso adierazgarria eta ordainezina da. Hitz horiek beren hesia sortzen dute. Baina funtsezkoa da gai guztiak eztabaida politikoan egotea eta pertsona guztien askatasuna eta berdintasuna defendatzen dutenen arrazoiei erreparatu ahal izatea.

Ez dezagun gairik utzi eztabaida politiko eta elektoraleatik kanpo. Herritarrok erabaki behar dugu beti. Badakizue: bilatu, konparatu eta, hoberik aurkituz gero, erosi.

IBILTARIEN SARE ERRALDOIA OSATUKO DA

‘Izan Bidea’ dinamikaren barruan, milaka herritarrekin batera Euskal Herriko tontor ezagunenak igotzeko erronka jarri du Sare herritarrak; bihar goizean egingo da egitasmoa Tolosaldeko hainbat herritan, «iheslarien etxeratzearen alde eta elkarbizitza eta bakearen alde»

Irati Saizar Artola

Iazko maiatzean, *Izan Bidea* dinamika jarri zuen martxan Sare herritarrak, euskal presoek eta iheslarien etxeratzearen alde, eta elkarbizitza eta bakearen alde dauden herritarrak batu asmoz. Orain, erronka berri bat jarri dute: Euskal Herriko 650 menditara igo eta tontorretara aldarriak eramatea. Bihar goizean, eskualdeko hainbat herritan, mendietara igoerak egingo dituzte; guztira, 20 tontorretara joateko deia egin dute. Sare herritarrak esan duenez, «inoiz egin den tontor igoera bateratu handiena» izango da biharkoa.

Euskal Herriko tontor «esanguratsuenak» eta, aldi berean, «gertukoenak» igoko dituzte. «Mendizale amorratuak ez ezik, familiak, haurrak, helduak, zaharrak eta gazteak, nahiz urtean behin mendi buelta txikia baino egiten ez duten horiek ere elkartuko gara ekimen honetan», esan dute. Herritarrek ekimenarekin bat egin dezaten, Sarek dei egin diete «elkarbizitzaren eta bakearen alde, konponbidearen alde, eta preso eta iheslarien etxeratze prozesua martxan jartzeko bidea egin nahi duten guztiei, eta baita urratsak eman eta kilometroak egiteko prest dauden guztiei ere».

Ekimen hau urrian egiteko prestatu zuten, baina eguraldiak lagundu ez zuenez, atzeratzea erabaki zu-

ten. Iritsi da eguna, iritsi da presoek etxeratze aldarria lau haizetara zabaltzeko eguna. Tolosaldeko kasuan, Aralar mendilerroan, Txindoki, Ganbo, Aldaon eta Artubira egingo dira igoerak; Uzturre inguruko tontorretan, Uzturre bera, Belabieta, Urdelar eta Ipuliño zapalduko dituzte; Hernio inguruko gailurretan, berriz, Herniozabalera igoko dira; Aiztondo bailaran, Loatzo, Belkoain eta Zarateaitz izango dituzte helmuga; eta azkenik, inguruko herri txikietako mendietara ere joango dira: Basagain, Illaun, Almitxuri, Otsabio, Ulizar, Narbaitzu eta Intxurrera, besteak beste.

Izan Bidea dinamikaren barruan, dagoeneko milioi bat kilometro baino gehiago egin dituzte, pausoz pauso, dinamikarekin bat egin duten 4.400 kide inguruk. «Egunetik egunera, are gehiago gara ibiltarien sare honen parte egin eta dinamika honen barruan kilometro eta urratsak batzen gabiltzan herritarrak», dio Sarek.

Presoek eta iheslarien etxeratzearen «nahi» horrek, euskal jendartearen eta instituzioen «adostasun zabala» lortu duela esan du Sarek, «pairatzen duten salbuespen legediarekin amaitu eta etxerako prozesua martxan jartzeko». Beraz, ozen esan dute, eta ozen oihukatuko dute bihar ere mendi tontorretatik, «euskal presoak Euskal Herriratzeko garaia» dela.



TOLOSALDEKO TONTORRAK

• **ABALTZISKETA**, Txindokira.

08:30ean, Zamaoko langan.

• **ADUNA**, Belkoainera.

09:30ean, herriko plazan.

• **ALEGIA**, Mareara.

09:00etan, herriko plazan.

• **ALKIZA**, Herniozabalera.

08:00etan, herriko plazan.

• **ALTZO**, Otsabiora.

09:30ean, herriko plazan.

• **AMASA-VILLABONA**, Loatzora.

09:00etan, kiroldegian.

• **AMEZKETA**, Artubira.

Plazatik abiatuta.

• **ANOETA**, Basagainera.

09:30ean, plazan.

• **ASTEASU**, Zarateaitzera.

08:30ean, eskolako parkinean eta

10:00etan, Saskaraten.

• **BERASTEGI**, Urdelar eta Ipuliñora.

09:00etan, plazan.

• **GAZTELU**, Lartera.

10:00etan, plazan.

• **IBARRA**, Belabietara.

10:00etan, plazan eta 10:30ean, Izaskunen.

• **IKAZTEGIETA**, Intxurrera.

09:00etan, kiroldegian.

• **IRURA**, Loatzora.

09:00etan, San Migel plazan.

• **LEABURU-TXARAMA**, Lartera.

10:00etan, Leaburuko plazan.

• **LIZARTZA**, Laparmendi eta Narbaitzura.

09:00etan, plazan.

• **OREXA**, Ulizarrera.

09:30ean, plazan.

• **TOLOSA**, Uzturrera.

10:00etan, Santa Klaran.

• **ZIZURKIL**, Zarateaitzera.

08:30ean, Zizurkil goiko aparkalekuan.

ATARIAn jarrita Goletti
eta Urola Kostako
Hitzaz egunkarietan doan

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€
Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€
Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu.

«Erronka honek pizgarri bat izan nahi du»

JON UGARTEMENDIA AZURMENDI

TOLOSALDEKO SARE HERRITARREKO KIDEA

Konponbidea eta presoan auziari aterabidea ematea batera doazela uste du Sareko kideak eta sozializazio eta sentsibilizaziorako aukerak baliatuta, ahalik eta kontsentsu zabalena lortu daitekeela dio, behin betiko bakerako bidean.

Jon Miranda

Preso, iheslari eta deportatuen egoeraren salaketa inoiz baina «osasuntsuago» dagoela dio Jon Ugartemendia Azurmendik (Anoeta, 1985). Azken hilabeteetan eskualdeko herrietan sortu diren Sare taldeak aipatu ditu adibidetzat eta taldea sortzeko mugak izan dituzten herrietan egin diren ekimenak. Mobilizazio horietara batu zaizkien herritarren jarri du azpimarra eta haiek zoriontzeaz gainera, eskerrak eman eta bide horretan jarraitzeko animoak eman dizkie.

Tontorretara igoera 'Izan Bidea' dinamikaren barruan antolatu duzue. Zer da dinamika hau?

Izan bidea, ibiltarien sarea Sarek azken urte honetan eskuartearen duen dinamika aktibatzailea da. Preso eta iheslarien auziari aterabidea emateko urratsak ematean, jendarte aktibazioan sakontzean eta herri honen aniztasun eta zabaltasuna batzean oinarritzen da dinamika. Finean, bakerako eta elkarbizitzarako bidea, konponbidea, guztion artean gauzatu beharreko ibilbide gisa irudikatzen dugu.

Nola gauzatuko da erronka hori?

3.127.326 kilometro egitea da erronka. Euskal Herriak

duen biztanle kopurua, hain zuzen. Hiru milioi biztanleko herri bat helburu batekin, bidea egitea: etxerako bidea, elkarbizitzarako bidea, bakerako bidea. Ekimen honen bidez, dagoeneko saretzen ari diren adostasunak era ikusgarriago batean plazaratu nahi ditugu. Erronka honek pizgarri bat izan nahi du, ilusioz eta determinazioz. Aktibazioa oinarri, herritarrek etorkizuna eraikitzeko protagonista bilakatu nahi ditugu.

Zure ustez Tolosaldeko gizartea aktibatuta dago preso, iheslari eta deportatuen eskubideen alde?

Ni herri txiki bateko kidea naiz eta pentsatzen dut

gure eskualde honetan desberdintasun ugari ditugula preso, iheslari eta deportatuen lanketaren barruan, herri guztietan, zorionez, ez ditugulako kasuak izan, eta horrek gaiaren gordintasuna ulertzeko mugak jarri izan dizkigulako askotan. Niri urte luzez horixe bera gertatu izan zait. Dena den, gaur egun, Tolosaldean oso jende aktiboa dago. Zoritxarrez gizarte

salaketarako beste aspektu asko ere baditugu inguruan, eta eskualde txikia izanik, une batzuetan, uste dut eskuak falta izan direla nork bere salaketak aurrera eta indarrez eraman ahal izateko.

«Norberak ahal duen esparruan baina egin dezagun bultza guztiok norabide berean»





Jon Ugartemendia Azurmendi, Tolosaldeko Sare herritarreko kidea. J.M.

Zuk zergatik erabaki duzu Sare herritarrean parte hartzea?

Sare herritarra sortu baino lehen ere banuen gutxieneko kontzientzia bat gure kide gertuko, eta horren gertuko ez zen jendea jasaten ari zen injustiziarekiko. Herrian egiten dugun hilabeteko azken ostiraletako salaketa ere ez da gaurko kontua, denborarekin konturatu naiz bertan ere izan ditugula preso eta torturatuak; hau da, egoera hau jasan dutenei izena jartzeko modua nuela, eta nire lagun, ikaskide edo herritar batek jasan behar izan zutela, gu gaur salatzen gabiltzan hau guztia. Ondorio honetara iristeak ekarri zuen kontzientzia hori indartu eta kanpora ateratzeko beharraz konturatzeari; hau da, gaia taburik gabe mahai gainean jartzeko beharra eta honen inguruan edonorekin hitz egitekoa. Azken batean, horixe da Sare herritarren proposamena eta helburu nagusia.

Zein helbururekin egiten duzue lan?

Sare herritarren oinarritzko helburua giza eskubideen errespetua eta hauen salaketa da. Zehazki esanda, presoek bizi dituzten eskubide urraketak onartu eta

uste dugu eskubide horiek itzuli behar zaizkiela, ahalik eta lasterren: gaixo larriek, euren tratamendua euren etxeetan eta konfiantzazko medikuaz lagunduta jaso behar dute; urrunketarekin amaitzeko, beharrezkoa da behin betiko jauzia ematea; motxiladun haurren errealitateari amaiera duina eman behar zaio, euren gurasoak bizilekutik gertuen dagoen espetxera ekarriz eta hauetan familia bizikidetzarako moduluak irekiz; graduen progresioa gauzatzea beharrezkoa da, horrek ahalbidetuko baitu euren eskubideen bermatzea. Laburbilduz, legedi arrunta aplikatzen hasteko garaia da.

Behin tontorretarako igoera hau bukatuta, beste ekimenik pentsatuta daukazu?

Noski. *Izan Bidea* dinamika ez du etenik. Tontorren erronka gauzatuta, *Ibilian-Ibilian* dinamika ibiltariari ekingo diogu. Gipuzkoan, maiatza amaieran hasi eta abuztura bitartean, eskualdeka mugituko den ekimen ibiltaria izango da eta herriak izango dira protagonista. Adostasunetik aktibaziora pasatzeko garaia da eta horretarako ezinbestekoak dira gisa honetako ekimen aktibatzaileak. Dinamika ibiltaria Tolosaldean, konkrituki, uztailaren 5etik 18ra bitartean landuko dugu.

Nola animatuko zenukete jendea Sare herritarrean parte hartzera?

Azken urtean jazo diren hurbilketek nahiz espetxe politikan aldaketa bat egon litekeenaren esperantzak, ilusioa piztu du euskal gizartearen gehiengoan; datoren urteetan presoan auziari aterabidea eman behar diogulakoan nago. Harremanak garatu nahi ditugu, adostasunak zabaldu, euskal presoan auzia mahai gainera eta erakutsi nahi dugu konponbidea eta presoan auziari aterabidea ematea batera doazela, sozializazio eta sentsibilizaziorako aukerak baliatu eta aniztasun nahiz kontsentsu ahalik eta zabalena lortu behar dugu. Bakearen eta bizikidetzaren bidea egin nahi duen edonor parte hartzera animatzen dugu; norberak egin dezala ahal duen moduan eta esparruan, baina guztiok egin dezagun bultza norabide berean.

IRAGARKI LABURRAK

LAN ESKAINTZA

Garbiketa lanak. Tolosan, garbiketan esperientzia duen mutil baten bila gabezia. Astelehenetik ostiralera lanaldi

osorako. Gidabaimena izatea ezinbesteko baldintza da. Interesatuak honako zenbakira deitu behar dute: 943 67 06 26.



**ALAZNE
APALANTZA**
FISIOTERAPEUTA

Sinistu

Ez dakit nekatuta nagoen, haserre nagoen ala minduta nagoen. Etengabe azalpenak eman behar izateaz nekatuta, haserre, minduta. Aste batzuk dira Espainiako telebista kate batean oraindik ere tabua izaten jarraitzen duen indarkeria matxistaz hitz egiten ari direla. Tabua diot bai, nahiz eta azken urteetan pausoak eman, legeak eraldatu, oraindik ere argi dagoelako ez gaudela prestatuta gai hauek jorratzeko edo gutxienez, epai gabe aritzeko.

Emakume bat, milioika pertsonen aurrean eta milioika pertsonen ahotan, hogeitaz luzez jasandako indarkeria azaltzen. Beno ez, justifikatzen. Hogeitaz izandako bizitza, hartutako erabakiak justifikatzen ari da, nolabait denok ulertu dezagun zer den etengabeko indarkeria matxista jasatea eta horrek nola baldintzatzen dituen superbibentziarako hainbat erabaki. Hitzeko indarkeria, azal eta gorputzeko indarkeria, sexu indarkeria, bikotean bizitako indarkeria, seme-alabek gurasoekiko duten indarkeria... Zer gai gordinak, ezta? Baina, hain zaila zaigu beste pertsona baten azalean jartzea? Hainbeste datu

eta xehetasun behar ditugu halako zerbait bizitzen ari den pertsona batekiko begirada aldatzeko? Begirada aldatu edo sinesteko.

Sarean kuxkuxeatu dut, izugarria da bertan aurki daitekeena. Egia da, gehiengo handi batek babestu duela emakume hori baina oraindik irakur daitezke: «Lirain asko dago ba!»; «Nola da posible alaba batekin harremana etetea?», «Nolaz ez du kontatu orain arte»... Eta ez dakit jabetzen zareten, biktima dena bat-batean epaitua dela, betiko begiradatik. Emakumea erdigunean beste behin, eta epaitua izateko berrirori ere. *Manadaren* kasua datorkit burura, zenbat aldiz errepikatu zen neska hark bizitza normala egin zuela eraso osteko hilabeteetan. Normala? Benetan pentsa dezake jendeak, neska hark bizitza normala

izan zuela? Benetan ezin gara jabetu bizitakotik bizirauteko, aurrea egiteko ahal zuen modurik onena bilatu zuela? Eta etengabe datorkit burura, ama perfektuaren irudi hori, exijitzen zaigun ama perfektuaren irudi hori. Akaso dena jasan, onartu eta sufritu behar du ama batek? Gogorra egiten ari zait hori guztia ikustea eta zailantza izatea, emakume horri si-

Beti diot gauzak hobeto egoteak, ez duela esan nahi dena ondo dagoenik. Sistemak 'baina' ugari ditu oraindik.



nesteko gai ez izatea. Zuzenean edota zeharka indarkeria mota hori bizitu dugunok, ulertuko diogu elkarri.

Beti diot gauzak hobeto egoteak, ez duela esan nahi dena ondo dagoenik. Sistemak 'baina' ugari ditu oraindik. Astekari honetan lehen aldiz Indarkeria obstetrikoren inguruan hitz egiten agertu nintzen, Itzea Urkizurekin izan nuen hizketaldi luze batetik sortu zen elkarriketa batekin -963. *zenbakian*, 2018-11-23-. Eta urruti ikusten dut goiz euritsu hura. Eta asteka ikusten ari naizen doku-seriean askotan datozkit burura nire neskak. Kontsultatik eguero pasatzen diren nire neskak. Ezkutuan, zeharka, infantilizazio etengabe batean biolentzia jasaten du-

Eta ez dakit jabetzen zareten, biktima dena bat-batean epaitua dela, betiko begiradatik. Emakumea erdigunean beste behin, eta epaitua izateko berriro ere.

ten nire neskak. «Beno baina orain ondo zaude»; «Txiki zoragarri bat duzu, azkenean hori da inportantea», «Orain gauza guztiei garrantzi handiegia ematen diozue»... Eta justifikatu egin beharra, profesional batek ondo artatu ez izana, eta justifikatu beharra informatu gabeko esku hartzeez, eta justifikatu beharra probintzia berdinean, sistema berdinean, ospitale ezberdinetan, ebidentzia zientifiko eguneratuak dioenari so egin gabe hartzen diren

erabaki eta protokoloez kexu garenean. Dena justifikatu beharra, dena sinestarazi beharra.

Jarraitu hitz egiten neskak, hitza da boterea. Hitz txiki bakoitzak, aldaketa handi bat ekar dezake eta hori da bidea. Elkarrekin gaude. Nik sinesten dizut.

«Maitasuna dagoen bitartean, ez dago oztoporik; dena gainditzeko gai gara»

JOSU UZKUDUN ETXENAGUSIA

Tetraplegiak gorputz-adarren erabateko paralisia eragiten dio pairatzen duenari, bizkar-muineko lesioen edota gaitz neurologikoen eraginez. Errehabilitazio-prozesu luzeen bidez mugikortasuna zertxobait berreskuratu daitekeen arren, zientziak oraindik ez du konponbiderik topatu egoera horiei buelta emateko.

Mikel Eizagirre Egiguren

Josu Uzkudun Etxenagusia (Errezil, 1971) eta Marijo Askarai Sukuntza (Tolosa, 1971) senar-emazteak Anoetako bizilagunak dira 2005etik. Uzkudunek hainbat urte daramatza tetraplegia egoeran, eta Askarai beti ondoran izan du. Anoetara gerturatu gara, tetraplegiaren nondik norakoez eta euren bizitzaz mintzatzeko.

Noiz eta nola geratu zinen tetraplegia egoeran?

2003ko otsailean, 32 urte betetzeko bost egun falta zitzaizkidala, auto-istripu baten ondorioz bizkar-muineko lesioa izan nuen. Harrezkeroztik tetraplegia egoeran geratu nintzen.

Bigarren bizitza bat, zentzu guztietan...



Bai, bigarren bizitza bat, berriz jaio banintz bezala. Egia esan, berriz jaio nintzen. Esaten didatenez, bihotz-geldialdia izan nuen. Ni ez naiz gogoratzen, beste mundu batean egon nintzela besterik ez dut oroitzen. Hortaz, berriz jaio nintzen eta bizitza berri bat hasi behar izan nuen, zentzu guztietan. Lesioaren ondorioz, berriro ikasi behar izan nuen arlo guztietan moldatzen.

Zure nortasuna baldintzatu duela uste duzu?

Nik nire betiko nortasunarekin jarraitzen dut, baina bai gauza asko ikasi ditudala. Istripua izanez geroztik, bizitza askoz gehiago baloratzen ikasi dut; baita momentu bakoitza aprobetxatzen, bizitzen eta jendearekin beste era batekoa izaten ere ikasi egin dut.

Nolakoa da bizi osoan zutik ibili den pertsona ba-



Auto-istripu baten ondorioz bizkar-muineko lesioa izan zuen Uzkudunek. **M.E.**

tentzat egoera horretara ohitzeko prozesua eta gorputzarekin garatzen den harreman berria?

Goitik behera aldatzen da bizitza. Gaur zutik zaude, eta bihar, esnatu eta zure egoeraren inguruan pentsatu orduko, ezer baino lehen, bizi nahi duzu, arnasa hartu nahi duzu. Behin arnasa hartu eta ikusten duzunean ez zarela mugitzen, ez dituzula gorputzeko atalak mugitzen, buruari bueltaka hasten zara: 'Nola izango da?'.

Medikuek landu egin behar duzula eta saiatu egin behar zarela esaten dizute... Une batez lehengo egoerara itzuliko zarela pentsatzen duzu, baina egunez egun ikusten

«Gaur zutik zaude, eta bihar, esnatu eta zure egoeraren inguruan pentsatu orduko, ezer baino lehen, bizi nahi duzu, arnasa hartu nahi duzu»

duzuna da aurrera egiten duzula, baina ez zuk uste bezainbeste. Azkenean, poliki-poliki, lehengo bera izango ez zarela mentalizatzen zara. Baina indarra jarri behar duzu barrutik, daukazun guztia. Inguruko-en laguntzarekin, familiakoekin eta ondokoekin batik bat, aurrera egiten saiatzen zara. Niri behintzat, horrek lagundu ninduen.

Gero, Toledoko zentro espezializatuan izan nintzen. Ebakuntzaren ondorioz pneumonia harrapatu nuenez, arnasa hartzeko arazoak izan nituen lehen-bizi; zailtasunak nituen, hodi bat neukan eta makina bidez hartzen nuen arnasa. Orduan, arnasa nire kabuz hartzeko prozesua hasi zen. Hori lortu nuenean, poliki-poliki, egunez egun, gurpildun aulkian eseri eta pixkanaka lantzen joan nintzen. Bederatzi hilabete luze izan ziren, familiakoak ondoan nituela. Prozesu luzea izan zen oso, luzea eta gogorra. Baina beraien, inguruan nituen guztiek eta nire moduan zeudenek, pila bat lagundu ninduten. Horrek indarra eta ausardia eman zidan bizimodu berriarekin aurrera jarraitzeko.

Zure inguruak nola erreakzionatu zuen? Zein izan zen jendearen jarrera?

Toledotik itzuli nintzenean, baserrian pasa nuen urtebete, ez baikenuen gure Tolosako pisura igotzeko igogailurik. Han nahiko arraro begiratzen zuen inguruko jendeak, ez baitzekiten ezer honi buruz. Hala eta guztiz ere, nahiko ondo egon nintzen baserrian. Hori bai, lagunak partetik hiru bisita baino ez nituen jaso. Ez dakit ausartzen ez zirelako izan ote zen.

Bi alabaren aita zara gainera, nola aldatu zen zure aitatasuna?

Istripua izan aurretik oso gutxi egoten nintzen umeekin. Aste guz-

tia lanean, asteburu asko lanean... Is-
tripua izanez geroztik, nire hurrekin
inoiz baino gehiago egoteko eta go-
zatzeko aukera hori izan dut behin-
tzat. Alde horretatik, oso aberasga-
rria izan da.

**Emozionalki ez ezik, ekonomikoki
ere garestia da tetraplegia...**

Bai, oso garestia. Emozio aldetik ga-
restia da, baina alde horretatik behintzat lantzen saia
gaitezke: ingurukoekin, familiakoekin eta abar. Zen-
tzu horretan, nahiko eramangarria egiten zait, nire
kasuan behintzat. Ekonomikoki oso-oso garestia da.
Laguntzak eta gurpildun aulkia ematen dizkigute,
baina ez digute osorik ordaintzen. Sei urtetik behin
ematen digute gurpildun aulkia aldatzeko aukera,
baina %20a guk ordaindu behar izaten dugu. Ema-
ten diguten aulkia oso murrizta izan ohi da. Guk mu-
gikortasun gehiago eskainiko digun aulki bat nahi
badugu, ordaindu egin behar dugu.

**Zein egoeratan aurkitzen dira zuentzako pentsio
publikoak? Ba al da arrazoirik astelehenetako elka-
rretaratzeetara joateko?**

Noski dagoela arrazoirik. Daukagun pentsioa oso es-
kasa da. Nire moduan dagoen jendeak oso laguntza
murrizta du. Borroka asko egin behar dugu pentsio-
en inguruan, orokorrean, denongatik. Baina bereziki
gure egoeran dagoen jendearengatik, ematen dute-
na huskeria baita.

**Etxeko asistentzia lanen auzia eztabaidagai izan da
aspaldian. Nolako baldintzak daude erabiltzaileen-
tzat eta sektoreko langileentzat? Instituzioek kon-
tuan dituzte zuen beharrak?**

Kontutan hartzen dituzte, baina horiek ere oso
murriztak dira. Nire kasuan, adibidez, hemezortzi
urte daramatzat asistentzia jasoaz. Aurreneko ur-
teetan, ordubeteko asistentzia bakarrik jasotzen
nuen egunero. Duela urte gutxi hasi naiz egunean
hiru orduko asistentzia jasotzen, eta asko dago
egiteko. Prestakuntzarik gabeko jendea dago,
bizkarrezur-muineko lesioekin aritutako jenderik
ez dago, gure etxera etortzen den jendea dena

«Daukagun
pentsioa oso
eskasa da.
Nire moduan
dagoen jendeak
oso laguntza
murrizta du»

egiten erakutsi behar izaten zaio...
Pertsona bat izan dugu prestakun-
tza pixka batekin etorri dena, bai-
na orokorrean asko dago egiteko.

**Espazio publikoari dagokionez,
maiz esan ohi da ez dagoela presta-
tuta. Oztopo asko aurkitzen dituzu
egunerokotasunean?**

Bai. Egia da asko egin dela azken
urte hauetan. Ni herrira etorri nintzenean, adibidez,
espaloï zein oztopo pila bat zeuden, eta orain nahi-
ko ondo dago. Hori bai, pixka bat mugitzeko, Tolo-
sara edo beste herrietara, oztopoak eta espaloïak
daude beti: zezabide gutxi, tabernetara igotzeko
koskak, mahairik ez gure altueran... oztopo pila bat.
Askok ari da egiten, baina oraindik pila bat dago
egiteko.

**Mugikortasunari begira, zein zentzutan aldatu zi-
ren bidaiak eta oporrak zuen familian?**

Pila bat aldatu zen. Lehen ni nintzen gidaria, ni nin-
tzen kotxea eramaten zuena, ni nintzen bidea aurki-
tzen zuena. Egun batetik bestera, emazteak hartu
behar izan zuen kotxea, berak zuzendu behar izan
zuen guztia. Erabat aldatu zen. Bere ardurapean hiru
ume eramango balitu bezala izango zen orduz ge-
roztik, goitik beherako aldaketa.

**Bi arreba espetxean izan zenituen gainera. Nola
bizi da dispertsioa gurpildun aulkian dagoen seni-
de baten azaletik?**

Orokorrean, dispertsioa denontzako da gogorra.
Baina gure kasuan, bereziki, oraindik gogorragoa da.
Bi arreba espetxean izanda, maitasuna oinarritzkoa
da. Zuk ondokoa asko maite duzunean, oso zaila da
hura ikusi gabe egotea, eta hainbeste kilometrotara
egoteak balazta bat jarri nahi dio zure nahiari eta be-
rarekin egoteko gogoari. Baina zuk, halere, beraiekin
egon nahi duzu, eta ahal duzun guztia jarriko duzu
beraiekin egoteko.

Gurpildun aulkian hainbeste kilometro egin behar
izatea oso gogorra da, oztopo asko daudelako: ko-
txearekin joateko, kotxea egokituta izateko, kotxeko
deserosotasuna... Gero, harantz joan eta hotel bat

topatzea ere nekeza da. Guretzako hotel berezia behar den heinean, prezioak ez dira makalak. Oso gogorra da denontzat, baina are gehiago gure egoeran daudenentzako.

Urte eroa izan da 2020a, kezka berezirik eragin dizu egoera pandemikoak? Zer izan duzu faltan?

Kezka asko izan ditut, izan ere, ebakuntza baten itxaroan nengoen iaz: etxean itxita, ebakuntza-dataren atzerapenarekin, nola joango den pentsatzen, kutsatzeko beldurrez, ospitalean egoteko beldurrez, askatasun faltarekin... Gure kasuan, gainera, arnasa hartzeko gaitasun berdina ez dugunez, musukoarekin ibili beharra ere oztopoa da. Orokorrean, oso gaizki joan da urtea.

Zerekin gozatzen duzu gehien aisialdian?

Aisialdian denarekin gozatzen dut normalean. Parrandak, otorduak, familiarteko bazkariak, baserria... Egunerokotasunean, kalean kafetxo bat, baratza, paseatzea, udaberria, natura...

Zein da zuretzat bizitzan aurrera egiteko gakoa? Zer esango zenioke tetraplegia egoeran geratu berri den norbaiti?

Egunero esnatzea, egunero esnatzea eta argia ikusi ahal izatea. Familia eta ondokoak ere oso garrantzitsuak dira, eta maitasuna. Tetraplegia egoeran geratu den bati esango nioke bizitzak merezi duela, berriro hasten dela bizitza bat, ez dena erraza, oso-oso gogorra dela, baina merezi duela bizitzeak. Maitasuna dagoen bitartean, ez dago oztoporik; dena gainditzeko gai gara.



«Nire eskubideen bermea nahi dut; hori lortzeko, sistemak eraldaketa bat eskatzen du»

MARIJO ASKARAI SUKUNTZA

Marijo Askarai Sukuntza (Tolosa, 1971) Josu Uzkudun Etxenagusia-ren (Errezil, 1971) ondoan da urte luzez; senarra tetraplegia egoeran geratuz gero Marijo Askarai bere esku eta besoak bihurtu da. Familien eskubideak aintzak hartuta, erakundeek egin beharrekoak gordinki mintzo da.



Mikel Eizagirre Egiguren

Hamasei urte igaro dira Josu Uzkudun Etxenagusia auto-istripu baten ondorioz bizkar-muineko lesioa izan eta tetraplegia egoeran geratu zela. Ondoan duen Marijo Askarai Sukuntzaren begiradatik dator tetraplegiari buruzko azterketa.

Azken hamasei urteotan Josu Uzkudunen besoa izan zara...

Besoa bakarrik ez, hori baino gehiago. Hasteko, bere emaztea naiz, bere bultzada, bere euskarria, bere indarra eta bere ongizatea bermatzen duen pertsona bakarra.

Beso pare bat baino askoz gehiago zara. Sozialki, ordea, nola ikusten da tetraplegia egoeran dagoen gizonezko baten emaztea?

Ba gai horrek, justuki, arrakalak sortzen dizkit askotan. Gizartean ikusten da gure figura *ezintasun egoeran dagoen norbaiten emazte, zaintzaile eta laguntzaile* gisan. Miresgarritzat jotzen da, era altruistan baloratzen delako: «Oh, nolako gaitasuna, gelditu egin da!». Zitalkeria pixka bat ikusten dut hitz horietan. Alegia, adibide bat jartzeko, haur bat jaiotzen denean, inork ez du esaten: «Oh, zein ongi, haur bat hezten ari zara, zaindu egiten duzu, aurrea egiten duzu!». Ez, ez zait iruditzen konnotazio edo testuinguru hori eman behar zaionik pertsona bat ezintasun egoeran geratu delako. Hau da, pertsona bat da, bere gaitasun kognitiboak aktibo daude, gertatu dena da fisikoki ez dituela lehen zituen gaitasun horiek. Niri, bere horretan, ez zait iruditzen



funtsezkoa den zerbait bezala ikusten denik, baina bai miresmena eragiten duela. Esate baterako, gaitasun handiko pertsona bat bezala ikusten zaituzte, baina ezjakintasun handiz. Beste pertsona gutxietsi edo minimizatu egiten da hein batean, zenbait gaitasun galdu dituelako. Alde batetik, ez da benetan ikusten hor pertsona baten nahia dagoenik, eta bestetik, beharrak dituenik. Horiek uztartzeko garaian, edo sozialki bere horretan kokatzeko behintzat, oso azaletik ikusi ohi da. Ez da era natural batean ikusten: «Ba beno, senar-emazteak dira, gertatu egin zaie, eta aurrera egingo dute euren egoera ikusirik, beste edozein pertsonak bezala». Ez, berezitat hartu ohi da, eta horrek asko molestatzen nau. Konnotazioa, alde berean, niri zuzenean esana,

ondokoa da: «Meritu handia duzu, eta zelako *farde-la* hartu duzun zure gain».

Lehen, agian, ez zegoen halako ikuspegi bortitzik, eta gaur egun bortitzagoa ikusten da pertsona bat ezintasun egoera baten ondoan geratzea. Zure bizitza alferrik galdu duzula pentsatzen dute. Konnotazio hori ematen zaio, eta hein batean arrazoi dute, zure bizitza baldintzatu egiten duelako, ezintasun egoera baten barne bizi zarenean zu ere maila batean ezindua bihurtzen zarelako. Baina bestetik, ez zaio benetako barne-funts hori ematen: pertsonak gara, eta pertsonak garen momentutik, ahaztu egiten zaigu denok dugula denon beharra.

Zenbaterainokoa da senarraz arduratzeko hautuak suposatzen duen konpromisoa eta maitasuna?

Hasteko, aurreneko bi hitz zentzudunak maitasuna eta konpromisoa dira. Aldi berean eta loturik doaz. Horiek ez baleude, ez genuke gure bizi-proiektua aurrera eramango. Kontuan hartu Josu 31 urte zituela geratu zela egoera horretan. Beraz, gure familia, gure bizi-proiektua, gure helburuak, gure asmoak, gure ametsak eraikitzen ari ginen. Eta horiek denak bertan behera gelditu ziren istripua izan bezain pronto. Horrek bi zentzuotan aurrera egitea suposatzen zuen: maitasunean eta konpromisoan. Konpromiso horren barne, sakrifizio zein galera asko ere bada bidean.

Etxeko asistentziak zenbateraino arintzen du zure lana?

Oso gutxi. Azken finean, etxeko asistentzia bi multzotan banatzen da. Bata etxeko laguntza da, non pertsoneri egunerokotasunean bizi ahal izateko gauzatxo txiki horiek egiten laguntzen dieten. Bestetik, laguntza pertsonala dago. Kasu hauetan gertatzen dena da, normalean, dena zaku berean sartzen dela. Ez dago ikuspegi konkreturik erabiltzaileak dituen behar ugariak identifikatzeko, hau da, kasu honetan asistentzia pertsonala da, pertsonari dagokion laguntza. Haur txiki bat zaintzeko egiten diren gauza berdintsuak dira, ez da gauza bera, baina antzekoa da, tamainaz aldatzen delako eta pertsona heldu batekin ari garelako. Baina azken batean funtzioa berdintsua da: pertsona hori egoki txukundu eta jantzi egin behar duzu, azpian dauden mekanismoak ere



jarri behar izaten dira, eta abar. Hor konturatzen gara etxez-etxeko laguntzak ez daukala prestakuntzarik horrelako egoerei aurre egiteko. Askotan, egoera desatsegin eta deserosoak bilakatzen dira.

Zer dute faltan laguntza horiek?

Enpresa kudeatzaileen bitartez laguntzaile bat bideratzen dutenean, prestatuta dagoela esan ohi digute, profesionala dela dioen agiri bat duelako. Baina gure etortzen denean, bere ustekabea da ez duela inoiz egoera horiekin topo egin, ez duela menpekotasun handiko arlo horretan esperientziarik. Gure edo nire funtzioa izaten da pertsonalki erakustea, ez dutelako inolako oinarririk ez jakintzarik.

Kasu horietan, hainbat aldiz gertatu zaigu laguntzaileek ezintasuna azaltzea eta gure erabiltzailearen beharra bertan behera uztea. Orduan, zure intimitatea urratzen dute, zure esparru intimoan sartzen dira, dena ikusten dute eta zaintza horri aurre egin ezin

diotela zuzenean esateko zilegitasuna sentitzen dute. Hor ikusten dugu gabezia eta bazterkeria. Azken batean, gure egoerak eramaten gaitu halakoak pairatzera eta bizitzera. Ez zaigu zuzena iruditzen paper batek profesionalak direla esaten duelako beraien erabakitzea non zaindu dezaketen pertsona bat eta non ez. Guk ere eskubideak ditugu, eta horretan oinarrituta, gure eskubideak ez direla errespetatzen ikusten dugu. Gabezia bat ikusten dugu bai formakuntzan bai prestakuntzan, eta ez dagoela eskubiderik egoera horiek sufriarazteko. Ez dute zertan gu baztertu eta zerbitzua emateari utzi ez direlako gai sentitzen beharroi aurre egiteko.

Egoera hauek pixka bat jarraitu behar lirateke. Zuk gertatutakoa azaldu arren, enpresakoek nahiz kudeatzaileek ez dute kontutan hartzen. Profesionaltasun agirian baino ez dira oinarritzen, baina praktikotasunean bestelako gauzak azaltzen dira. Guretzako

iraingarria da pertsonalki. Gure denbora eta jakintza beraien eskura jartzen dugu, eta zenbait kasutan hori bermatzea lortzen dugun arren, beste askotan ez dugu lortu. Deseroso eta gaizki sentiarazten gaituzte, enpresak eta gizarte zerbitzuek ez dutelako jarraipenik egiten. Legediak dio urtean behin edo bitan jarraipena egin behar dutela, nola gauden galde-tu egin behar digutela, eta zaintza hori faltan sumatzen dugu. Erabateko bazterketa sentsazioa bizi dugu, ezintasun egoeran dagoen pertsonak eta bere alboan dagoenak; bakardade ikarragarria.

Zerk lagunduko lizuke bizitza zoriontsuagoa egiten?

Bizitza zoriontsuagoa egiteko, posible ez diren desirak daude alde batetik. Egoera hau behin betiko saihestea edo konpontzea, alegia, zientziak lehengo gaitasunak berreskuratzeko adina aurrera egitea. Hori zoriontasun totala litzateke, baina beno, hori amets itsu bat da. Baina zorionaz hitz egiten dugunean, ez dugu asko eskatzen. Nik, nire zaintza arlotik, emazte eta kasu hauen zaintzaile sutsu zein egonkor bezala, sistemak aintzatespena ematea eskatzen dut. Horrelako egoerek zure arlo sozial, ekonomiko eta pertsonala baldintzatzen dute. Gu 21 ordu gaude gairenean, eta beste hiruak sistemak ezarritako laguntzak izaten dira.

Baina 21 orduak nireak dira, eta horiek ez dira kontenplatzen. Pertsona produktibo-erreproduktiboa naiz, inolako onurarik gabe.

Nire lana ez da kontuan hartzen, eta zoriontsua izateko gustatuko litzaidake sistemak hori onartzea: nire lana, nire zama, nire sakrifizioa... Aitorpen ekonomikoa ez

«Deseroso eta gaizki sentiarazten gaituzte, enpresak eta gizarte zerbitzuek ez dutelako jarraipenik egiten»

bada ere, norbanako eta kanpo-langile naizen heinean, menpekoen familiakoek bizi dugun errealitatea kontuan izan behar litzateke. Gaur egun ikusten da haur bat izaten duzunean diru laguntzak eta bestelako babes motak daudela, praktikan ematen direnak. Gure kasuan, ez dago horrelako ezer. Laguntza motak ere ez dira iritsi inoiz, eta oso bakarrik sentitu naiz.

Askotan joan izan gara foru aldundiak antolatutako halako topaketa eta saio txikietara, eta bertan psikologo batek esaten digu kafetxo bat hartzeko tartetxo bat hartu behar dugula, aisialdiaz gozatu eta deskonektatu behar dugula. Oker. Nik ez dut psikologorik behar kafe bat hartzeko, aisialdirako eta deskonektatzeko beharra dudala jakiteko, kontua da nik ezin dudala inoiz deskonektatu. Beti erlojuaren menpe bizi gara. Kafe bat hartzeko ez dut aholkurik behar, bada-kit kafe hori nik bakarrik hartzen. Sistemak eman behar harko lidake, praktikotasunean, beste edozein pertsonak —langile, ekoizle edo erreproduktore gisa— dauzkan onura berdina. Nik ere eskubidea dut zaintza lanik gabe hilabeteko oporraldia egiteko. Eskubidea dut aste-bukaera bat libre izateko, beste edozein

langilek bezala. Eskubidea dut nire bizitzan zer nahi dudana erabakitze-ko, eta egoera honek baldintzatu egiten nau, ez dit eskubide hori ematen. Orduan, eskubide horien bermea nahi dut. Hori lortzeko, sistemak eraldaketa bat eskatzen du, gure posizioa ikusi eta guk benetan sentitzeko bagarela nor, eta egiten dugunak funtzionaltasuna duela. Hori da zoriontasuna niretzako.



Iran, Persiako sekretua

Zer gomendio duzu oraingo honetan?

Dudarik gabe, Iran.

Zer dela eta?

Ez nuke jakingo nondik hasi!

Ekialde eta mendebalde bitartera joateko gogoa baduzu, exotikoa den nonbaitera eta benetan liluratu-ko zaituen nonbaitera joatea baldin bada zure asmoa, Iranera joan beharra daukazu.

Benetakotasunak, Antzinako Persiako magiak azkar harrapatuko zaitu.

Iran, Asiako kontinentean kokatua dago eta Afganistan, Armenia, Azerbaijan, Irak, Pakistan, Turkmenistan eta Turkiarekin mugak ditu. Imajinatu zernolako influentzia desberdin eta aberatsak dituen.

Noiz joan gaitezke Iranera?

Udaberritik udazkenera joatea gomendatzen da batez ere, uda bero samarra delako eta negua ere zonalde batzuetan hotzegia suerta daitekeelako. Hortaz aukeran, udaberria eta udazkena primerakoak lirateke bisitan joateko.

Bamen, Kerman probintzian kokaturik, bere antzinako hondakinak ikusi beharra daude. Harritzko armada Persepolis zeharkatzen, Isfahan edo Yazd bezalako hiri erromantikoak, leku sakratu eta enigmatikoak Zproastrismo eta Tath Sulaiman bezalakoak... Ez dakit nondik hasi, ezta non bukatu ere! Ikaragarri gauza pila ikusteko dago Iranen.

Eta nolako da jendea Iranen?

Bertako herritarrak, Iranek gorderik duen sekreturik onena da. Persiarren definiziorik beteena euren hospitalitatea da. Aurreiritziak alde batera utzi eta herrialdeaz maitemintzea bezalakorik ez dago!

Eta jakiei dagokionean, Irango ogia probatu beharrekoa da. Bandemjan izeneko eltzekaria ere probatu, berenjena, tomate eta kurkumarekin eginikoa, oso oso goxoa eta indarberritzen zaituen jakia da gainera. Kebab-ak ere oso ohikoak dira eta Polo Baghali ere oso tipikoa da -arroza, baba eta anetekin-, ahaztu gabe persiar janarien artean jogurtarekin eginiko jaki guztiak. Edarien artean, belarrekin eginiko edari mota desberdinak izaten dira, uda garaian hotzak izanik eta negua aldean infusio moduan hartzen diren te edo damnush-ak. Gogoratu Iranen debekatuak daukela alkohola duten edariak.

Benetan gomendagarria. Ezbairik gabe maiteminduko zara Iranekin.



**VERONICA BALDA, ENARA ETXEBERRIA
MYRIAM GURRUTXAGA**




OIBAR OLANO
HARITUZ-EKO KIDEA

Askatasunari ziña

Doinua lhes betea zillegi balitz

Euskal Herria herri zaharra da
Herri nahi eta eziña
Ta zentzu baten ematen dio
Herri honi bere griña
Nahiz eta urte askotan pasa
Trixtura ta bihotz-miña
Aspaditik egiña diogu
Askatasunari ziña.



Txostenerari gerra, gerra beti



**HARITZ
AZURMENDI
IRAKURLEA**

Birus bat dabil euskaldunen artean, txosteneraren birusa. Bertso finaletan «erkin» errima bezalaxe ari da erreplikatzen gure artean. Hala ere, ahaztu sukarrak eta hizketaldi suharrak; birus honek justu kontrakoa ekartzen du eta: hizkera hotzila, gatzik gabea, hitzak adituta ere, hizketaldi erabat isila. Aspergarria.

Jakina da egungo koiuntura [koiuntúra] okerra urte luzeetan aurrera eraman den saretze baten emaitza dela, non hitzartze zein idatzi ulergaitz bezain desegokiak direla medio, nahiz lanketa okerreko ildoen bidez, zeinaren bitartez mahaigaineratu [mahaigainerátu] egin diren hutsune eta gabezia anitz, horrekin batera

hedatuz euskaraz ondo egitea esaldi luze konplikatuak eta esamolde «jaso» ponposoak erabiltzea delaren ideia.

Orain hori irakurrita barre egingo duzue, baina libratu, hemen inor gutxi libratzen da. Birusak berdin erasaten die *kaxeroei*, *gekaeseroei* eta *filosoferoei*; berdin jotzen ditu doktoreak, liberatuak eta funtzionarioak (euskara teknikari zenbait ez azkena). Nolabait sartu zaigu buruan hobe dela goiko paragrafo hori, nik zer dakit ba, prestamo dudosoren bat ibiltzea baino. Eta hortxe denok, turismo bulegoko planoekin bezala, esaldiak nondik eta nola tolestu asmatu ezinik, desesperatuta.

Ondo ulertu behar da arazoa: hau ez da euskaldun berri/zahar, euskalki/euskara batu edo euskara garbi/mordoilo eztabaidaren beste kapitulu bat. Hizkuntza bixi jostariaren eta tramankulu-hizkeraren arteko gerra da; ez dena euskararen bakarrik gertatzen, gainera.

Hemendik ere egin daiteke zerbait, ordea. Zuzentasun *korrektisimo* batekin jendea eta gure burua ez itotzea, esate baterako. Errazago izango da hizkuntza nahieran erabiltzen duenari, behar denean eta behar den lekurako, zuzentasun gida batzuk ematea, ~~no?~~ ezta? Edo iturri egokietatik edatea. Zeren, benetan, gaztelaniazko zortzi kilometroko esaldiak oinarri hartuta egin behar ditugu idatzia? Has gintezke berrikasten hizkuntzak lehen-lehenik jolasteko, konbentzitzeko, limurtzeko direla. Eta gero, oso bigarrenik, emakidak izapidetzeko.

Ondo ulertu behar da arazoa: hau ez da euskaldun berri/zahar, euskalki/euskara batu edo euskara garbi/mordoilo eztabaidaren beste kapitulu bat. Hizkuntza bixi jostariaren eta tramankulu-hizkeraren arteko gerra da; ez dena euskararen bakarrik gertatzen, gainera.



**NEKANE
ARTOLAZABAL
ROYO
HERRITARRA**

Orain eta hemen

Bi mila eta hamazazpian izan zen. Zumalakarregi ibilbidean Amaia-ekin egin nuen topo, ikaskide ohi batekin. Aspaldi zen ez genuela elkar ikusten, eta, kortesiak agintzen dituen formulak esanda, Whatsapp talde batean sartu nahi ote nuen galdetu zidan. Talde haren helburua, 50 urte betetzen genituenean bazkari bat antolatzea. Gustura eman nion nire telefono zenbakia, eta, agur esan ondoren, betiko eginkizunetara bueltatu nintzen.

Etxera iritsi nintzenerako banuen telefonoan talde

bat betiko joan zitzaigun, gazte, oso gazte. Eta, gero-ra, pandemia bat etorri zen. Beraz, ezinezkoa izan zen iaz elkartzea eta gure mende erdia ospatzea.

Bizi dugun egoera honen ondorioz, beldurrak airean dabilta nire inguruko asko, eta utzi egin diote gustuko zituzten zenbait gauza egiteari: ez dira lagunekin elkartzen, ez dira zinemara joaten, ezta kontzertuetara ere, ez dute besarkadarik eman eta jasotzen... Kezkagarriena zait batzuk eroso sentitzen direla beren beldur horretan. Baina ahaztu egin dute beldurrak errealitateetik urruntzen gaituela beti, arrastaka baina indar handiz balizko agertoki zorigaizto batera eramaten gaituela, BA-LIZ-KO-A, ez erreala, eta ia beti hauspotua, hanpatua, puztua. Errealitatea da zu orain

Errealitatea da zu orain eta hemen zaudela, nik idatzitako artikulu hau irakurtzen. Agian, egongelako besaulkian izango zara, lasai eserita, edo sukaldeko mahaian, irakurri bitartean eskuan baso bat ardo duzula. Orain eta hemen. Beste guztia buruaren jolas tranpati eta mugatzailea da.

hartan parte hartzeko gonbidapena. Polita eta hun-kigarria iruditu zitzaidan ikaskide ohiekin berriz elkartu eta bizitza nola joan zitzaigun ikusteko aukera izatea. Beraz, lehenengo agur mezua idatzi nuen proposamen batekin. Ez dut hitzez hitz gogoratzen zer jarri nuen, baina halako zerbait zen gutxi gorabehera: «Bizitzak ezustekoak ematen dituenenez, zergatik itxaron eta ez aprobetxatu parada bazkari bat antolatzeko artean talde honetan gaudenokin?». Amaiak bakarrik eman zion baiezkua nire proposamenari; beste inork ez zuen ezer aipatu.

Profetikoa izan zen mezu hura. 2020an bete genituen 50 urteak. Tartean, zoritxarrez, taldeko lagun

eta hemen zaudela, nik idatzitako artikulu hau irakurtzen. Agian, egongelako besaulkian izango zara, lasai eserita, edo sukaldeko mahaian, irakurri bitartean eskuan baso bat ardo duzula. Orain eta hemen. Beste guztia buruaren jolas tranpati eta mugatzailea da.

Gaixotasun honek agerian eta nabarmen zerbait utzi badu, nire ustez, hauxe da: gaur bagarela, baina bihar, agian, ez. Beldurra, beldurra baino ez da, eta, kankar esaten duen bezala, «denborak aurrera egiten du etengabe». Zail egiten zaigu, baina uxa ditzagun beldurrak eta balia dezagun *orain eta hemen* honek sortzen dizkigun aukerak egin nahi ditugunak egiteko, galdutako aukerak, ia beti, betiko galtzen direlako.

AGENDA

OSTIRALA MAIATZAK 7

ALKIZA

ERRETRATU NOMADA

17:00. *Erretratu Nomada*. Pertsonak, herriak eta argazkiak proiektuaren aurkezpena, elizan.

ANOETA

URTEURRENA

18:30. Gaztetxearen XXII. urtemuga. Estudioaren proiektuaren aurkezpena, gaztetxean bertan.

IBARRA

BERTSO SAIOA

18:30. Bertso saioa Ane Zubia, Aner Peritz, Maider Altuna, Haizea Arana, Ekhiñe Zapiain eta Aimar Sorazurekin. Gai jartzailea: Garoa Lizartza. Gonbidapenak Ibarako kultur etxean egongo dira eskuragarri. (Kultur etxera gerturatu ezin dutenek, telefonoz egin dezakete gonbidapenaren erreserba: 943 670399). Plazan.

IRURA

MUSIKA ZUZENEAN

17:30. DJ. Little Martin musika emanaldia. Errekalde tabernak antolatuta, bertako terrazan.

TOLOSA

ANTZERKIA

19:00. *Atzerrian lurra garratz*. Amancay Gaztañagak zuzenduta, Ander Lipus eta Laura Penagos izango dira oholtzan Miren Amurizak idazten lagundu duen istorioa kontatzen. Leidor antzokian.

ERAKUSKETA

17:30-20:30. Ekainaren 12a arte, Aranburu jauregian, *Munduari leihotxo bat*, Ana Amigoren eskutik.

ZIZURKIL

BIZIKLETA MEKANIKA TAILERRA

18:30. *Bizikletaren mantenua eta transmisioa* tailerrean parte hartzeagatik bost euro ordaindu beharko dira. 12 pertsonako taldeak gehienez. Tailerrean ardura Darena txirrindularitza taldeak du.

LARUNBATA MAIATZAK 8

AMASA-VILLABONA

SORMENETIK GURERA

11:30. Malkarreko gaztetxoek elkarriketa arin eta jostari bat egingo diote Antton Telleria irrati esatariari, aurkezle eta umoristari. Galdera biografikoak, gaur egungo jardunari lotuak, galdera deserosoak eta *challenge* dibertigarri bat egingo dute. Galtzaundi euskara taldeak sustatutako egitasmo bat, Malkar aisialdi taldearekin elkarlanean eta Villabonako Udalaren laguntzarekin antolatuta. Errebote plazan.

ANOETA

BARATZA TAILERRA

10:00-11:30. Baratza tailerra (HH1-HH2).

11:45-13:15. Baratza tailerra (HH3-LH1-LH2). Ikastolako baratzean.

URTEURRENA

16:30. Sukaldeko proiektuaren aurkezpena, gaztetxean bertan.

ZIRKO TAILERRA

16:30. LH2-LH3ko haurrei zuzendurik, zirko tailerra kiroldegian.

LIZARTZA

ZAINTZA HILABETEA

12:00. *Zein estrategia psikologiko ditugu COVID-19aren aurrean?* hitzaldia, Alaitz Aizpurua eta Emenen Gelbentzu psikologoaren eskutik. Doan, udal aretoan.

TOLOSA

JABETZE ESKOLA

17:00. *Nik ere baditut ikasketak. Nola homologatu?* saio informati-



boa, Katia Reimberg Castelloren (Bidez Bide) eskutik, kultur etxean eta gazteleraz.

KONTZERTUA

19:00. Bartzelonako Anteros taldearen kontzertua. Sarrerak zortzi euroko kostua izango du, Bonberenean.

TOLOSALDEA

EUSKAL HERRIKO MENDI

TONTORREN IGOERA

Sarek deituta, 'Izan Bidea' ekimenaren barruan.

Herriz herri hainbat tontor igoko dira Tolosaldean. **Irakurri erreportajea 4-7 orrietan eta ikusi tontorren zerrenda 5. orrian.*

ZIZURKIL

ANTZERKIA

19:45. *Kasilda, bukatzen ez den sua* antzezlan, Intxaur frontoian. Hiru euro. Kasilda Hernaez Vargas, Zizurkilen jaio zen emakume iraultzaile eta euskalduna, guda zibilean eta bere bizitza osoan zehar ideia libertarioen eta bizimodu natural baten alde borrokatu zen. Intxaur frontoian.



**IGANDEA
MAIATZAK 9**

AMASA-VILLABONA

KONTZERTUA

13:00. Villabonako Onddo gazte asanbladak antolatuta, Ekiñeren kontzertua, Onddo plazan.

ANOETA

URTEURRENA

11:00. Gaztetxearen XXII. urtemuga. Zirko tailerra, gaztetxean.

DOKUMENTAL PROIEKZIOA

18:00. *Dardara* dokumentala, Berri Txarrak azken biran filmatutako pelikula. Mikelasagastin.

IRURA

ANTZERKIA

17:30. *Futbolariak eta printzesak.* Topiko sexistekin hautsi nahi duten gaztetxoentzako komedia azkarra. Eidabe taldearen eskutik. San Migel plazan edo Kulturunean.

**ASTELEHENA
MAIATZAK 10**

IRURA

ODOL EMATEA

Arratsaldea. Gipuzkoako Odol Emailen eskutik, herri eskolan.

BERTSOLARITZA TAILERRA

19:00. Bertsolaritza tailerra gazte eta helduentzat Harituzen eskutik. Maiatzaren 3, 10, 17 eta 24an, astelehenetan. Izen-ematea: *harituz.bzt@gmail.com*, apirilaren 30a baino lehen. Kultur etxean.

TOLOSA

HITZALDIA

11:30. *Pentsio publikoak* hitzaldia eskainiko du Txomin Lorca bizkaitarrak. Gainera, maiatzaren 29an egingo diren mobilizazioen inguruko informazioa eskainiko da.

JABETZE ESKOLA

15:00. *Emozioak sormenaren bidez kudeatzen* tailerra, Leire Markinezen eskutik, kultur etxean eta euskaraz. Matrikula: 5 euro.

OHARRA. Aldizkaria inprentara bidaltzerako indarrean zegoen eskualdeko agenda da honakoa. Jakina denez COVID-19ak uneen uneko aldaketak sortu ditzake.

ZINEMA



UPSSSS! Y AHORA

DÓNDE ESTÁ NOÉ...

Larunbata, igandea (16:45).
Amasa-Villabona, Gurea.



AQUELLOS QUE DESEAN

MI MUERTE

Larunbata, igandea eta
astelehena (19:00).
Amasa-Villabona, Leidor.



CUÑADOS

Larunbata, igandea eta
astelehena (19:00).
Tolosa, Leidor.



BOBBY EL ERIZO

Igandea (16:00).
Tolosa, Leidor.

«Iragana begiratzeaz gain, orainaldiari ere so egitea garrantzitsua da etorkizuna alda dezagun»



MIRENA NAFARRATE

1993. GASTEIZ.

Aktorea eta abeslaria, hainbat laburmetrai egin ditu, tartean *Tua*, zinema ikasten duen bere ahizparekin batera garatutako proiektua, alegia. Kataluniako Antzoki Nazionalean (TNC) *Esquerdés parracs enderrocs* antzezlanean aritu zen lanean Jordi Oriol eta Carlos Santosen zuzendaritzapean. Orain postprodukzioan dagoen *Larrugorritan* web-seriean casting zuzendari eta aktore zuzendari gisa ibili da. Bere azken lana Iciar Bollain zuzendariaren *Maixabel* luzemetraian izandako parte-hartzea izan da.



PATRICIA ALBIZU

1988. MARKINA-XEMEIN.

Sorkuntza kolektiboak gogoko dituen eszenografa eta figurinista, milaka proiektu ezberdinetan hartu du parte. Jose y sus hermanas konpainiaren parte da; honako konpainia Kataluniako kritika-aren sarietan izendatuta dago *Explore el Jardín de los Cárpatos* antzezlanarekin, azken joeren hautagai gisa. Alex Rigolarekin ere lan egin du, besteak beste. Nathy Pelusoren eta Maria Arnal&Marcel Bagesen *set-design*-a burutuz. Bi artista hauen jantziak ere bere eskuetatik pasa dira. TV3en eskaini zen *Benvinguts a la família*ko atrezzista ere izan zen.



Hodei Arrastoa

Gaur *Zazpigarren Ilara*-n ditugun bi artistek goi-mailako antzerki ikasketak egin ahal izateko Euskal Herritik Kataluniara joatera behartuta ikusi zuten beraien burua.

Non ikasi duzue?

Mirena Nafarrate. Gasteizko Ortzai eskolan hasi nintzen hamasei urte nituela. Gero hemezortzirekin antzerki proba ezberdinak egin nituen Milan eta Londresen, eta azkenean Bartzelonako Institut del Teatren onartu ninduten. Orain Liceu kontserbatorioan nago gitarra eta ahotsa lantzen.

Patricia Albizu. Diseinuan gradua egin nuen Bartzelonako Elisava eskolan. Horrez gain, Institut del Teatren egin-dako beste gradu bat ere badut: Eszenografia, jantzitegia eta argiztape-

«Gazteentzako fikzioaren bat ikusi nahi dut, umore-tsua, egungo gai sakonekin»

MIRENA NAFARRATE

na. Gero graduondokoa egin nuen teknologia eta eszena digitalean.

Zein izan zen zuen lehenengo lan profesionala?

M.N. Zineman, *Maixabel*. Antzerkian, *Esquerdas parracs enderrocs*.

P.A. Alejandro Curielek zuzendutako *Propiedad Privada (P/P)*.

Laneko anekdotarik izango duzue...

P.A. Nathy Pelusoren azken CDko azalean ura ageri da lurrean. Egitura txiki bat sortu eta urez erraz bete genuen, baina gero husteko sekulako komeriak izan genituen... Ehun litro ur ez dira erraz lurrunten. [Barreak].

M.N. *La importancia de llamarse Frank* emanaldian aktore batek tarta bat botatzen zidan aurpegira eta jarraian zerbait esan behar nuen, baina

nire kidea barrez hasi zen eta ni halabeharreen... begiak ezin ireki. Azkenean ni ere barrez hasi nintzen egoeragatik.

P.A. Badut beste anekdota bat. *Benvinguts a la familia* telesailean hildako gorpu bat agertzen zen. Egun batean, grabatzeko bi unitate ginela, gorpua lokalizazio batetik bestera eraman behar genuen eta auto baten atzealdean sartzeak beldurra ematen zigun, bidean norbaitek ikusi eta benetakoa zela pentsatzen bazuen ere. Azkenean gidariaren ondoan ipini genuen gerriko eta guzti. Eguzkitako betaurrekoak ere jarri genizkion... [Barreak].

Zein da euskal fikzioarekiko duzuen ikuspuntua?

M.N. Borroka armatua Euskal Herriko historiaren parte da, baina horrez gain gauza asko gertatu dira. Ongi dago horri buruz pelikulak egitea, baina betiko ikuspuntu berdinetik egin ordez, interesgarria litza-teke ikuspuntu ezberdinetatik azaltzea. Eta aldi berean, ondo legoke Euskal Herriak dituen beste mila gai lantzea ere. Gazteentzako zerbait, umoretsua, egungo gai sakonak azaltzen diren fikzioen bat ikusi nahi dut.

P.A. Bai, ni ere bide beretik noa. Euskal fikzioak gertatutakoaren berrikusketa egin ohi du eta zinemak, eta baita antzerkiak ere, ez du horretarako soilik balio: etorkizunerako pentsaera sorraz dezake edota orain gertatzen ari diren gaien inguruan dikotomia agerraraz diezazuke. Iragana begiratzeaz gain, orainaldiari ere so egitea garrantzitsua da etorkizuna alda dezagun.

M.N. Badirudi euskaldunon irudia denbora guztian borrokan dabilzan astakiloena dela. Istorio polit eta sakonak azaltzeko izango ez bagenitu bezala!

Nolakoa da euskal artista gazteen etorkizuna hemen, Euskal Herrian?

P.A. Gordina, nirea behintzat. Nik Bartzelonan badut lana, antzoki ezaguetan nabil lanean eta dagoeneko sartu dut muturra sektorean, baina egia da ez dakidala nola egin gauza bera Euskal Herrian.

«Gustura gaude Bartzelonan, baina gure lurraldean ere lan egin nahi dugu»

PATRICIA ALBIZU



M.N. Ez dago gazteentzako serierik eta orain egiten diren filmak zahartuta daude, bertako pertsonaiek berrogei urte baino gehiago baitituzte. Horri zailtasun bat gehitu behar zaio: emakumezko pertsonaien falta. Euskal fikzioan ageri diren pertsonaia gehienak gizonezkoak dira. Orain hasi dira Itziar Ituño, Miren Gaztañaga... bezalako emakumeak pisu gehiago hartzen. *Errementari* filmean bertan, emakume oso gutxi ageri da eta haien rolak gizonen inguruan daude sortuta. Gazterik ere ez dago filmean. Proiektu berri bat

sortzen baduzu, derrigor *ETBra* aurkeztu beharra daukazu diru laguntzak eta babes eskatuz, baina nire ustez ez dute gazteen aldeko apustua egiten. Eta *Go/azen* telesailak ez dit balio, hogeita bost eta hogeita hamabost urte artean dauden gazteez ari bainaiz. Patricia dioen bezala, euskal antzerkian muturra sartzea zaila da



zirkulu itxia delako eta are gehiago kanpoan bizi bazara. Ni hara itzul naiteke bizitzera, baina inork ez nau ezagutzen. Euskal zineman sartzea errazagoa dela deritzot errepresentante baten laguntzaz.

P.A. Gustura gaude Bartzelonan egonkortasun bat lor dezakegulako, baina gure lurraldean ere lan egin nahiko genuke.

M.N. Euskaldunak gara eta gure kulturaren inguruan ere lan egin nahi dugu. Beste aukera bat da Katalunian prestatu ditugun emanaldiak Euskal Herrira eramatea...

P.A. *Explore el jardín de los Cárpatos* Euskal Herriko antzokietan erakutsi nahi dugu, ea elkarrizketa honek hori lortzeko bidea errazten digun! [Barreak].

M.N. Ni Euskal Herritik Kataluniara antzerkia ikastera joan nintzen duela zortzi urte. Orain Dantzerti eskola dago Bilbon, baina orduan ez zegoen goimailako ikasketarik. Batzuk Madrilera ere joaten dira...

P.A. Ni ere berdin. Gainera oraindik ez dago nik ikasi dudanaren pareko ikasketarik Euskal Herrian. Han nire arlo berean lanean dabiltzan pertsona ez dakit non egin dituzten euren ikasketak.

MOTZEAN



Zuzendari bat?

M.N. Nacho Vigalondo.

P.A. Philippe Quesne.

Aktore bat?

M.N. Julie Andrews, Ramon Barea, Ivan Massague, Frances McDormand...

P.A. Asier Etxeandia.

Serie bat?

M.N. *Ratched* eta *Dark*.

P.A. *Bridgerton*. *Sex Education*, *Cuento de la criada* eta *Euphoria*ko jantziak ere oso ondo eginak daude.

Genero bat?

M.N. Komedia eta drama.

P.A. Beldurra izan ezik, edozer.

Pertsonaia bat?

M.N. Mary Poppins. Nik egiteko bada, erregina bat.

P.A. Garai bateko jantziak daramatzan bat.

«Ehunduren trataera eta koloreak oso ondo daude»

Hodei Arrastoa

Mirena Nafarrate eta Patricia Albizu artisten laguntzarekin *Errementari* filma ikuspegi zabalago batez ikusteko aukera izan du ATARIA-k gaurko *Zazpigarren Ilaran*. Pelikularen argiak eta ilunak zerrendatu dituzte arte eszenikoen alorreko bi euskal emakume hauek: Mirena Nafarrate eta Patricia Albizu.

‘Errementari’ filmeko jantziak Nerea Torrijosek eginak dira, orain gutxi emakume berak Goya saria eskuratu du ‘Alekarre’ filmean egindako lanagatik.

Patricia Albizu. Bai, ehunduren trataera eta koloreak oso ondo daudela iruditzen zait. Karakterizazioari dagokionez, demonioari dagokion proposamen artistikoa ez dut guztiz elkarbanatzen: deabru tipiko bat ageri da eta nahiz eta badakigun benetan existitzen ez direla eta sekula ez ditugula gure begiekin ikusiko, pertsonalki, beste bide batetik helduko nioke demonio horren estetikaren sorkuntza prozesuari.

Mirena Nafarrate. Orokorrean filmetan mitologia lantzea asko gustatzen zait, euskal mitologiak badu eta zerbait magikoa. Kasu honetan txikitatik entzun dugun errementariaren ipuina azaltzen da eta XXI. mendean horretan atentzinoa jartzeak badu meritua. Pertsonaia hori orainaldira ekarrita «zer da errementari bat gaur egun?», galdetuko nuke. Ni eraberritzearen aldekoa naiz. Gainera, baditugu sorginez aparte hainbat emakumezko pertsonaien istorioak oraindik azaltzeko: Mari, lamiak...

P.A. Zer gertatuko litzateke mitologiaren hondarrak orainaldian erabiliko bagenu? Mirenak esan duen bitartek jarraituz, nortzuk dira gaur egungo sorginak?

«Demoniori dagokion proposamen artistikoa ez dut guztiz elkarbanatzen»
PATRICIA ALBIZU



M.N. Karlistekin hasten da filma eta istorioak berak horren beharrik ez duela iruditzen zait.

P.A. Euskal Herriko arropa biltegi guztiak karlisten uniformeaz beteta daude. Eta baita ardi-larruz ere! [Barreak].

M.N. Neska txikiak oso ondo egiten duela iruditzen zait, berari buruz gehiago jakin nahi nuen. Errementaria Usueren aita den ala ez zalantzan jartzea ideia ona dela deritzot eta elkarren artean duten erlazioa polita iruditzen zait.

P.A. Une komikoak ere badaude lurreko zepoekin...

M.N. Eta Itziar Ituñoren pertsonaiak senarrari ematen dizkion belarrondo-



koekin ere bai. Matriarkatu itxura izan dezakeen familia horren atzean betiko patriarkatua dago.

P.A. Guztiz ados.

M.N. Neska txikia errementariaren etxean sartzen denean tentsioa handitzen da, kaiolan mutiko bat

«Baditugu sorginez aparte hainbat emakumezko pertsonaien istorioak oraindik azaltzeko»

MIRENA NAFARRATE

daukala ikusten delako. Hala ere, behin demonio bilakatzen denean beldurra baino grazia sortzen dio ikusleari.

P.A. Hori zuzendariaren eraba-

kia da ziur, umore puntu hori modu horretara jokatu nahi duelako.

Paul Urkijo Alex de la Iglesiaren baliokide euskalduna al da?

M.N. Nire ustez, Paulek euskal mitologia eta beldurra nahastu egin nahi ditu eta sortzen den hori euskaraz azaldu.



ERREMENTARI

Zuzendaria

Paul Urkijo.

Aktoreak

Kandido Uranga.

Uma Bracaglia.

Ramon Agirre.

Eneko Sagardoy.

Josean Bengoetxea.

Itziar Ituño.

Ikusgai

Netflix plataforman.



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA

Eguraldi lasaiarekin jarraituko dugu. Goizean goiz hodeitza trinko xamarra izango da, baina orokorrean ateri eutsiko dio. Goiz erditik aurrera ostarte batzuk zabalduko dira eta arratsalde partean giro argia izango da. Haizea aldakor ibiliko da eta tenperaturak beste koska bat egingo dute gora, 23-24 gradutan joaz goia.

LARUNBATA


Uda beteko giroa. Goizean zerua erabat urdin agertuko da eta eguzkiak gogotik lan egiteko aukera izango du. Arratsaldean goi-hodeiak ugarituko dira, tarteka zeruari kolore zurixka emanez, baina bestelako ondorioz ekarri gabe. Haizeak hegoaldeko joko du, tarteka bolada bizi batzuekin eta tenperatura balio altuenek nabarmen gora egingo dute, eguneko erdiko orduetan 30-31 gradu berotan joaz goia.

IGANDEA

Aldaketa eguna izango dugu. Goizean hodeiak eta ostarteak izanagatik, zeruan urdina nagusituko da eta eguraldi ederra izango dugu. Arratsaldean ordea bero-hodeiak garatuko dira, zerua estali egingo dute eta euritara joko du, non tarteka ekaitzak jo eta zaparrada handi xamarrek bota ditzakeen. Haizea goizean hego-mendebaldetik ibiliko da. Arratsaldean ipar-mendebaldera aldatu eta indar pixka bat hartuko du. Tenperatura balio altuenak 27-28 gradutan errendituko dira, baina arratsaldean nabarmen freskatzeko joera hartuko du.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK



ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...*
Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95 • ataria@ataria.eus

San Esteban 20 Tolosa

FARMAZIAK

MAIATZAK 7, OSTIRALA IBARRA

Egunekoa. Leyre Lejeune Maset.
Euskal Herria, 24.
943 67 32 74.

MAIATZAK 8, LARUNBATA VILLABONA

Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias.
Kale Berria, 34. 943 69 11 30.

MAIATZAK 9, IGANDEA TOLOSA

Egunekoa. Edurne Bengoetxea.
Kale Nagusia, 7.
943 67 06 48.

MAIATZAK 10, ASTELEHENA IBARRA

Egunekoa. Cecilia Bronte Posada.
Korreo kalea, 20.
943 67 60 13.

**EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO
FARMAZIA: TOLOSA.**
LURDES AZPIROZ GALARZA.
LARRAMENDI, 6. 943 67 51 18.



R. ZABALA
SINCE MORE THAN 200 YEARS

GARAGARTZA BASERRIA
20150 ADUNA, GIPUZKOA,
BASQUE COUNTRY, SPAIN

INFO@RZABALA.COM

PHONE NUMBER
0034 943 69 07 74

WWW.RZABALA.COM

**ERRESERBATZEKO
AURRETIK DEITZEA
GOMENDATZEN DA**

943 69 07 74 / RZABALA.COM



**Nafarroa etorb.
13 behea. TOLOSA
670 417 922
943 65 0313**



ISASTEGI

~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA~TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL: 943 65 29 64 ISASTEGI.COM





2 mó 99€

bat eguzkitakoa izan daiteke

+

ukipen-lenteak opari

Rocio Crusset

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

www.multipopticas.com   

MULTIÓPTICAS